



GOIMEN. HELBURUAK

Gure eginkizuna landa eremuak indartzea da, bizi kalitatea eta duintasuna, nortasuna babestu eta sendotuz. Landa eremuak hustu ez daitezen, Goieriko identitate zein kultura galdu ez dadin, herritar guztion inplikazioa bilatzen dugu.

Eskualde ikuspegia landuz herrien arteko lotura eta elkarlana bultzatzen da, nekazaritzak gizartean betetzen duen funtzioa azpimarratuz, eta kaletar zein baserritarren mundu biak berriro gerturatuz.

Eskualdeko Landa Garapen Programan jasotzen den bezala, iraunkortasuna lehenestuz, GOIMENen egitekoa **3 ardatz** nagusitan oinarritzen da:

- a) Nekazaritzaren errentagarritasuna ahalbidetu
- b) Gizarte egituraketa eta bizi kalitatea hobetu
- d) Landa eremuetako garapen sozio-ekonomikoa ziurtatu

Hauek ondorengo **8 helburuetan** laburtzen dira:

1. Nekazaritza jarduera duin eta erakargarri bilakatu errentagarri izatea landuz.
2. Baserritarren bizi eta lan baldintzak hobetu.
3. Baserrira iraunkortasun ikuspegitik landa eremuen giltzarrizko eragile nagusi bilakatu.
4. Kalitatezko ingurunea bultzatu. Honen zainketa.
5. Landa eremuetan lanpostu berrien sorrera bultzatu.
6. Herritarren gertutasuna eta eskualdeko eragileen inplikazioa identitatea babesteko.
7. Herri txiki eta nekazal auzunetako biztanleen bizi kalitatea hobetu.
8. Landa eremuetan oinarritzko zerbitzu eta azpiegiturak ahalbidetu.